

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Zerbitzu ezberdinak eskainiko ditugu, adibidez, maskotei ilea garbitu, ilea moztu, azkazalak moztu... Baita ere, web orri bat edukiko dugu eta bertan maskotentzak diren produktuak salduko ditugu, adibidez, uhala, pentsua, koilarea...

Zerbitzua, maskota duten pertsonentzat egongo da zuzenduta, izan ere, gure enpresak ezin izango du maskotarik gabe zerbitzua eman.

Egia da gaur egun animaliak garbitzeko hainbat enpresa daudela, nahiz eta asko ez izan, baina gure enpresari, besteekin konpetitzeko, berezitasun bat jarri diogu. Bezeroaren etxera hurbilduko gara furgoneta preparatu batekin eta bertan beraien maskota garbituko dugu, horrela bezeroak ez du etxetik mugitu beharko.